# Jokoak eragiten badizu




# Irteera daukazu!

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Ludopatiak modu desberdinean eragiten die sexu biei. Jokoa modu patologikoan bizi dutenen 1/3 inguru emakumezkoak dira, eta era berean tratamenduan dauden senideen laguntzaile nagusiak izan ohi dira (batez ere bikotekidea eta ama). Arazo hori dutenek hainbat sintoma agertzen dituzte hala nola depresioa, bakardadea, abandonua, inkomunikazioa eta duintasuna galtzea, besteak beste, eta errealitatetik ihes egiteko aritzen dira jokoan. Ehuneko hori gorabehera, gutxi dira tratamendua hasten duten emakumezkoak eta hala egiten dutenek gehienetan ez dute laguntza handirik jasotzen familiarengandik.

Egunero jokoan aritu behar zarela sentitzen al duzu?
Zure lana edo ikasketak eragozten al ditu?
Lehen baino gehiago jokatzen al duzu?
Beste pertsona batzuek gehiegi jokatzen duzula esaten al dizute?
Zenbat jokatzen duzun esaten duzunean gezurretan aritzen al zara?
Jokoak diru-arazoak ekartzen dizkizu?
Zure ingurukoei kalte egiten die?
Osasun arazoak sortzen ari dizkizu?
Utzi nahi duzu baina ezin duzu?
...

Baldintza horietan bazaude edo zure senideren bat hala dagoela uste baduzu, EZ IZAN BELDURRIK:

AFEKTATUA ZEU BAZARA:

Lehenik eta behin arazo bat daukazula onartu eta laguntza eskatu behar duzu.

SENIDEA ZEU BAZARA:

- Arazo horri buruzko informazio argia eta egiazkoa lortzen saia zaitez.
- Pentsa ezazu zeu ere afektaturik zaudela eta lagunduko eta orientatuko zaituen norbait behar duzula.
- Zuk jokalariari lagun diezaiokezu, elkarrekin egin behar duzuen bidean. Hori dela eta, zer egin behar den jakiteko orientazioa behar da.

GOGOAN IZAN: IRTEERA DAUKAZU!

ASAJER: Alaba Jeneralaren Kalea, 25 Zk. 1.a Esk
Tel. 945140468 / 945234990
E-mail: aajr@euskalnet.net
www.onlinezurekin.org